

ÚLTIMA HORA La línea C1 de Cercanías Bilbao registra retrasos por el robo de cable entre las estaciones de Lutzana y Zorrorroza **NUEVO**

Zurekin

Portada **Zurekin**

Usoa Wyssenbachek eta Aurelio Erdozain (Alai argitaletxea) | Territorios

«Zergatik ezin da lan bat euskaraz ere irakurri, itzulpena bada ere?»

Nazioartean ezaguna den 'Blackwater' literatura bilduma ingelesa euskaraz izango dugu, Alai argitaletxeari esker

Guardar Regala esta noticia 3



Usoa Wyssenbachek eta Aurelio Erdozain.



Aiora Sampedro

25/04/2026 a las 00:37h.

+ Seguir

Alai argialetxea beste editorial batean elkarrekin lan egin zuten bi lankidez dago osaturik eta hamar urteko ibilbidea ondu dute dagoeneko. Aurreko argialetxearen bidetik, askotariko lanak kaleratzen dituzte euskaraz (sukaldaritza, turismoa, haur eta gazte literatura). Nazioartean ezaguna da 'Blackwater' literatura bilduma ingelesa. Irakurle askok hain maitea duten narratiba gotikoaren barnean kokatzen da. Orain, euskaraz izango dugu argialetxeari esker. Aurelio Erdozainekin, haren editorearekin, eta Usoa Wyssenbachekin, bilduma itzuli duen itzultzailearekin, izan gara argitalpen honek euskal irakurleengan izan dezakeen arrakastaz aritzeko eta argialetxean liburu mota hau argitaratzearen zergatiak ezagutzeko. Hasteko, Erdozainek hartu du hitza.

-Nola hautatzen duzue zer argitaratu?

-Bi egoera desberdin bereizi behar ditugu: alde batetik, bilduma berri bati ekin nahi diogunean; bestetik, dagoeneko kalean dagoen bilduma batean titulu berri bat kaleratu nahi dugunean. Lehenengo kasuan, euskaraz pentsatu baino argitalpen gehiago dagoenez, ikusi behar dugu ea bilduma horrek lekurik izango duen euskal argitalpenetan, ea ekarpenik egingo dion euskal argitaratzeari eta nolakoak izango diren. Bestalde, irakurlerik izango al duen galdetzen diogu geure buruari. Bigarren kasuan, errazagoa da. Bilduma bat kalean duzunean, elikatu egin behar duzu, eta liburu berriren bat urtero bertan kaleratzen saiatu behar da, baina gutxieneko kalitatea duten liburuak argitaratu behar dira; bestela, hobe da urte horretan libururik ez argitaratzea.

-Bildumek zuen argitaletxean leku garrantzitsua dute., baita euskarazko lanek eta euskal bildumek ere...


-Bai, aurretik esan dudanez, bildumek izugarrizko garrantzia dute, eta horregatik liburuak kaleratzen hasi baino lehen, ongi zehaztu nahi ditugu bilduma horren ezaugarriak. Esate baterako, 'Go!azen' bilduma egin genuenean, ezaugarri batzuk eman genizkion bildumari, baina hiru urteren ostean, konturatu ginen bilduma horrek bestelako irakurleria bat zuela. Hori dela eta, buelta bat eman ondoren, 'Go!azen abenturak' bilduma berria kaleratzen hasi ginen. Bertan eginiko aldaketengatik liburu horiek irakurleei gehixeago egokitu bide zaizkie.

Zergatik ikusi duzue 'Blackwater' bilduma argitaratzeko beharra?

-Euskaraz haur eta gazte literaturaren arlokoa izan da kaleratu dugun gehiena eta guretzat erronka handia izan da beste publiko bati ere begira argitaratzea. Badirudi hogeitau hogeita hamar urte dituzten euskal irakurleek euskaraz idatzitako bizpahiru liburu irakurtzen dituztela urtean, baina itzulpenei muzin egiten dietela. Orduan, egoki ikusi genuen inguruko hizkuntzetan hain arrakastatsua zen bilduma bat euskaraz kaleratzea. Zergatik ezin da euskaraz ere irakurri, itzulpena bada ere? Euskal irakurleria benetan existitzen dela esango dugu beste hizkuntzetan ekoizitako liburuak euskaraz irakurtzen direnean normaltasun osoz. Bidenabar, itzulpenen hizkuntza kalitatearen auziari ere helduz, Usoa Wyssenbachek eginiko itzulpenean euskararen dotoreziaz goza daiteke euskaraz idatzitako zenbaitetan adina.

-Jarraituko duzue horrelakoak argitaratzen?

-Aurten bilduma berri bat kaleratu nahi dugu eta orain justu zehazten ari gara nolakoa izango den bilduma. Lehen irakurleentzat izango da eta formatua, letra mota, ilustratzailea eta idazleak hautatzen ari gara une honetan. Bestalde, apirilean sukaldaritzako liburu bat argitaratuko dugu: Mendaur, eta maiatzean hiru liburu berri kaleratuko ditugu: 'Blackwater' lau: Gerra, eta liburu bana 'Golazen' abenturak eta Mati bildumetan.



'Blackwater' bildumaren lan batzuk, euskaraz.

Argitaletxearen ideia izanik ere, lan bat merkaturatzeak beti du arriskua. Ekonomikoa, zein beste moduetakoa. Hala ere, editoreentzat soilik ez, itzultzaileen lana ere neketsua, konprometitua eta arriskatua izan ohi da. Usoa Wyssenbachek argi du zein izan den horrelako lan bat euskaratzearen erroka. Eta baita erakargarritasuna ere:

Zein da horrelako nazioarteko bilduma bat itzultzerakoan topatzen den zailtasunik/erronkarik handiena? Eta gusturik handiena?

-Nazioartean arrakasta handia izan duen bilduma baten aurrean gaude eta horrek, zalantzarik gabe, errespetua ematen dio itzultzaileari. Idazlearen estiloari zintzo jarraitzea, hori izan da erronkarik handiena. McDowelllek trebetasun handia du suspenseari eusteko, irakurlea hasiera-hasieratik harrapatzeko. Estilo zuzena darabil, itzulingururik gabea, irakurketari erritmo azkarra emanaz. Euskaraz ere efektu bera lortzen saiatu naiz, eta emaitza ona dela esatera ausartuko nintzateke. Baina irakurleak du azken hitza, noski.

-Zerk erakarri zintuen proiektu honetan lan egiteko?


-Idazleak berak erakarri ninduela esango nuke. Michael McDowellek ibilbide laburra –gazte hil zen, 49 urterekin– baina emankorra izan zuen: hogeita hamar eleberritik gora idatzi zituen, telebistarako gidoiak, filmetarako gidoiak... Haren lan nabarmenen artean aipatzekoak dira beldurrezko eleberri gotikoak, eta horien artean ospetsuena –eta nire ustez zirrargarriena– 'Blackwater' saga dugu. Fikziozko istorio bat da, XX. mende hasierako Alabaman girotua; hartan, McDowellek Caskey familiaren barruko dramak kontatzen dizkigu, tartean elementu fantastikoak eta naturaz gaindikoak daudela. Beldurrezko nobela gustuko baduzu, saga honek lehenbiziko liburukitik harrapatzen zaitu.

Más temas [Liburuak](#)

 3 comentarios

 Reportar un error

El Correo te recomienda



zurekin

Miguel Aizpuru: 'Guernicaren' mitoak eta egiak

Miguel Aizpuru



zurekin

Ikusezinak

Aster Navas



zurekin

«Nire amamari hizkuntza lapurtu zioten eta nik berreskuratut nahi dut»

Jan Echevarría

Lo más leído

1. El calvario de Tania: «Me hizo creer que me mutiló para salvarme y estoy muerta en vida»

6. El Euromillones sonríe a Bizkaia y deja un nuevo millonario en Amorebieta: comprobar resultados del 28 de abril